



OBRA-AMAIERAREN JAKINARAZPENA (2. LERROA – ERKIDEGOAREN OBRAK)

JABEEN ERKIDEGOAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Aurkeztu beharreko dokumentazio kasu guztietan
Obren fakturak eta ziurtagiriak, enpresa jaulkitzailearen eta birgaitze-jarduketan pertsona edo erakunde titularren datuak (IFZ barne), data, zenbakia eta BEZa barne.
Egindako lanaren koloretako argazkiak .
Proiektuari buruzko informazio-kartelaren argazkia , koloretan. Jabeen erkidegoak jarriko du, obrak egiten diren bitartean jendeak ikusteko moduko tokian, eta, bertan, hala badagokio, EGEF edo Next Generation funtsen baterako finantzaketa agertuko da.
Obrak egiteko udal-lizentzia eta eska daitezkeen udal-zergak ordaindu izanaren egiaztagiria, indarrean dagoen araudiaren arabera. Lizentzia hori beharrezkoa ez bada, dagokion alde aurreko jakinarazpena.
Ordaindutako obren udal-zergen eta tasen ordainagiriak.
Obraren amaierako ziurtagiria , teknikari eskudunak emana eta bere elkargo profesionalak ikus-onetsia, egindako obren izaerak hala eskatzen badu.
Zuzendaritza fakultatiboaren obra-likidazioa , dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsia, egindako obren izaerak hala eskatzen badu.
Enpresa kontratistak egindako erantzukizunpeko adierazpena , 47.2 artikuluan jasotako enpresa hornitzaileen betebeharrei eutsi zaiela egiaztatzen duena. (Txantiloia)
Zuzendaritza fakultatiboak emandako erantzukizuneko adierazpena , 47.2 artikuluan jasotako enpresa hornitzaileen betebeharrei eutsi zaiela egiaztatzen duena, gauzatutako obren izaerak hala eskatzen badu. (Txantiloia)
Erabilera eta Mantentze Planaren ziurtagiria, 2. lerroko jarduketa babesgarrien kasuan.
Eraikinaren ikuskapen teknikoaren zuzenketa-ziurtagiria , EITan 1 (berehala), 2 (oso premiazkoa) eta/edo 3 (presazkoa) esku-hartze mailekin identifikatutako patologia guztiak zuzendu direla egiaztatzen duena. EITaren zuzenketa EuskoRegiteren plataforman erregistratu bada, ez da beharrezkoa izango dokumentazio hori aurkeztea, eta ofizioz egingo da egiaztapena.
2. motako obretarako – energia-eraginkortasuna hobetzea (gainera):
Eraikin amaitu eta erregistratuaren energia-efizientiaren ziurtagiria eta dagokion etiketa energetikoa , hasierako eta obrak egin ondoren lortutako produktibitate-adierazleak eta jarraipena adierazita, eraikinen energia-efizientzia ziurtatzeko oinarrizko prozedurari buruz indarrean dagoen araudian aurreikusitakoaren arabera.